UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN HIRU GARBIGUNEETAN (AIA-ORION, ZARAUTZEN ETA ZUMAIAN) TEEH-ENTZAKO ESTALPEEI DAGOKIEN OBREN EXEKUZIOAREN KONTRATAZIOA PROZEDURA IREKI BIDEZ LIZITATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da Urola Kostako Udal Elkarteak kontratista bat hautatzea, administrazio-klausula partikularren agiri honetako **karatulako 1. puntuan** (aurrerantzean, karatula) adierazitako obrak egin ditzan.

Obra horiek agiri honen, exekuzio-proiektuaren eta kontratistaren proposamenaren arabera egingo dira.

Karatulako 1. puntuan, honako hauek adierazten dira kontratuaren zati bat baino gehiago lotetan zatitu, eta modu independentean egitea aurreikusten denerako: kontratua zer lotetan zatitzen den; hala badagokio, lizitatzaile berak zenbat lotetarako aurkez dezakeen eskaintza; hala badagokio, zenbat lote esleitu dakizkiokeen lizitatzaile bakoitzari; eta kasu bakoitzean zehazten diren alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea **karatularen 1. puntuan** adierazten da.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratatzailea Urola Kostako Udal Elkartea da (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea).

Kontratazio-organoa **karatulako 2. puntuan** adierazitakoa da. Organo horrek, hala badagokio, eta zuzenbide pribatuko arau aplikagarriei jarraiki, berariazko ahalmena eman ahal izango die egokitzat jotzen dituen pertsonei, kontratuaren inguruko jarduketa zehatzak exekutatzeko.

3. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko zaio kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik onena dakarren eskaintza aurkezten duen lizitatzaileari (aurrerantzean, eskaintzarik onena), agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera.

4. ALDAERAK

Hala badagokio, lizitatzaileek aldaerak aurkezteko aukera **karatulako 3. puntuan** adierazten da.

Aldaerak onartuz gero, **karatulako 3. puntuan** adierazten dira haien gutxieneko baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak, bai eta kontratuaren xedearekin duten lotura ere.

5. KONTRATU-DOKUMENTAZIOA

Esleipenaren ondoren formalizatzen den kontratuaz gain, honako dokumentu hauek ere kontratu-izaera izango dute:

- Administrazio-klausula partikularren agiri hau eta haren karatula.
- Urola Kostako eskualdeko hiru garbiguneetan TEEH-entzako estalpeei dagokien obren proiektuak, Karatulako **1. puntuan** jasotako daudenak.
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintza.

- **Karatulako 4. puntuan** adierazten den beste edozein dokumentazio.

Esleipendunak agiri horiek sinatu beharko ditu, ados dagoela adierazteko, kontratua formalizatzeko ekitaldian.

6. KONTRATUA EXEKUTATZEKO EPEA

Kontratuaren xede diren obrak exekutatzeko gehieneko epea **karatulako 5. puntuan** adierazitakoa izango da.

Gehieneko epe hori laburtzeko aukera **karatulako 5. eta 12. puntuetan** adierazten da.

Hala badagokio, kontratuaren xede diren obrak exekutatzeko gehieneko epe partzialak **karatulako 5. puntuan** adierazitakoak izango dira.

Hala badagokio, gehieneko epe horiek laburtzeko aukerak **karatulako 5. eta 12. puntuetan** adierazten dira.

Kontratua exekutatzeko epe osoa eta, hala badagokio, eskainitako epe partzialak betetzea funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **karatulako 6.1 puntuan** adierazten da.

Kontratuaren prezioa ere, **karatulako 6.1 puntuan** adierazten da.

Kontratuaren prezio horretan, kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak sartuko dira. Besteak beste, honako hauek, adierazpen huts gisa eta inolako mugarik ezarri gabe:

- Kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, agiri honetan eta exekuzio-proiektuan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Ez da gerora onartuko azken prezioan aldez aurretik kontuan hartu behar ziren kontzeptuengatiko fakturaziorik.

- Kontratuaren exekuzioak berekin dakartzan kontzeptu guztiak eta kontratua exekutatzeko enplegatutako langileen gastu guztiak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanak, bajagatiko edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripuen aseguruak, etab.), bai eta zerga guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio-gastuak eta joan-etorrien gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere. Halaber, tasak, bide publikoa okupatzeagatiko tasak eta obra guztien gaineko edozein motatako gastuak ere jasoko ditu.

- Kontratistak kontratua exekutatzeko erabili behar dituen bitartekoak, erremintak, ibilgailuak, ekipoak, tresnak, ekipamendu informatikoak eta aparatuak.

- Edozein obra-unitate behar bezala exekutatzeko eta haiei akabera emateko behar diren lan, giza baliabide, bitarteko lagungarri eta baliabide material guztiak, nahiz eta horiek guztiak ez agertu xehatuta prezioen deskonposizioan edo deskribapenean.

- Exekutatu behar diren lanetarako behar diren zerbitzu teknikoen prestazio guztiak.

- Obra-unitate guztiak osorik egitea, dokumentazio teknikoaren eta gainerako kontratu-dokumentuen arabera, agiri honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

- Zehaztutako material guztien hornidura, bai eta kontratuaren xedea burutzeko beharrezkoak direnena ere.

- Behar diren muntaketa- eta instalazio-lanak.

- Obrak exekutatzeko beharko diren makinak eta instalazioak, instalatzeko materialak eta ekipamenduak, eta beharko diren gainerako bitarteko lagungarriak, bai eta horiekin guztiekin lotutako gastu guztiak ere (zergak, garraioa, zamalanak, zaintza eta kontserbazioa, etab.).

- Obrarako instalazio lagungarriak (etxolak, garitak…), zaintzarako edo biltegiratzeko instalazioak, eta segurtasun- eta higiene-arauak betetzeko egindako instalazioak eraikitzeko, eraisteko eta kentzeko lanak.

- Kontratua normaltasunez betetzeko behar diren argi, indar, ur, energia eta abarren hornidurak eta kontsumoak, bai eta hartuneen eta obrako behin-behineko koadroen kostua ere, konpainia hornitzailearekin elektrizitatea hartzeko dagokien buletinak lortu arte.

- Garbiketa-lanak, bai lanak exekutatzean, bai lanak amaitu ondoren. Prezioaren barruan garbiketa osoa sartuko da, hau da, obrak osatzen dituzten zatietako bakoitza berehala erabiltzeko egokitzeko behar dena.

- Tartean diren erakunde publiko eta konpainia hornitzaileen aurrean, obrak egiteko beharrezkoak diren izapideak egiteko, kudeatzeko eta baimenak lortzeko gastu guztiak.

- Nahitaezkoak diren saiakerak.

- Segurtasun eta Osasun Planean xedatutakoa egitea, garatzea eta abian jartzea, bai eta obren segurtasuna eta egoera orokor ona bermatzeko gastuak ere.

- Obrak egiten diren bitartean eta berariaz urbanizazioaren gainean sortzen diren kalteak konpontzea eta dagokion elementuak birjartzea.

- Esleipendunaren langileen aseguru-polizak eta hirugarrenei (pertsonei edo gauzei) egin dakizkiekeen kalteak estaltzekoak, agiri honetan ezarritako mugekin.

- Obra-eremu osoaren zaintza eta segurtasuna, eta obra osorako sarbideen kontrola, indarrean dagoen legeriaren eta administrazioaren eskakizunen arabera.

- Zuzendaritza fakultatiboak deitzen dituen obra-bileretara joatea (gutxienez, astean behin egingo dira).

- Obraren errotulua, erakunde kontratatzailearen identifikazio korporatiboa duela.

- **Karatulako 6.1 puntuan** zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **karatulako 6.2 puntuan** adierazitako zenbatekoa da, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoaren (aurrerantzean SPKL), 101. artikuluan xedatutako moduan eta ondorioetarako kalkulatuta. Lege horren bidez, Europako

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira.

Kalkulu horrek ez dio konpromiso zehatzik eragiten erakunde kontratatzaileari.

8. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratistari hilero ordaindu beharreko prezioa obren zuzendaritza fakultatiboak emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko da, kontratistak baloratutako eta zuzendaritza fakultatiboak dagokion hilabetearen hurrengo hilabetearen lehenengo 10 egunetan baliozkotutako zerrendan oinarrituta. Ziurtagiri horietan, denbora-tarte horretan egindako obra jasoko da, benetako neurketa eginda.

Zuzendaritza fakultatiboak beharrezkotzat jotzen duen kopurua atxiki ahal izango du dagokion ziurtagiritik, obrak akatsak dituela ikusiz gero. Atxikipen hori ez da jada indarrean egongo ikusitako kaltea konpontzen denean.

Ziurtagiri bakoitzaren ordainketa obren likidazioaren konturako ordainketatzat hartuko da, exekutatutako obren azken neurketan gertatzen diren zuzenketa eta aldaketen mende, eta ordainketa horiek ez dute inola ere ekarriko ziurtagirian aipatzen diren obrekiko adostasuna, onespena eta harrera.

Kontratistak beste kontratista batzuei, erakunde kontratatzaileari edo hirugarrenei eragindako kalteak ordaintzen ez baditu, zuzendaritza fakultatiboak baloratuko ditu, eta hileko ziurtagirien bidez atxikiko dira likidaziotik.

Araudia bete gabe, behar besteko kalitaterik gabe, exekuzio-proiektuaren eskakizunak, tolerantzia onargarriak edo zuzendaritza fakultatiboaren oharrak bete gabe egiten diren lanak baztertu egingo dira, kontratistak inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izan gabe, eta aurreikusitako plangintzari eutsiz zuzendu beharko dira.

Ziurtagiri bakoitza 30 egun naturaleko epean ordainduko da, erakunde kontratatzaileak baliozkotzen dituenetik, onartutako ziurtagiriari dagokion faktura elektronikoa jaso ondoren.

9. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen webguneko *Kontratatzailearen profila* atalean, honako hauek argitaratuko dira:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarpena.
- Kontratuaren esleipenaren iragarpena.
- Kontratuaren formalizazioaren iragarpena.
- SPKLren 63. artikuluan adierazitako gainerako informazioa.

Erakunde kontratatzailearen webguneko *Kontratatzailearen profila* atalera web-orri honen bidez sartuko da: www.contratacion.euskadi.eus

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, **karatulako 9. puntuan** adierazitako zenbatekoaz.
Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu duela egiaztatu beharko du 7 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
Behin betiko bermea preziotik atxikipena eginda eratu ahal izango da.
Behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluak aipatzen dituen kontzeptuekin bat etorri beharko du.

Bermea SPKLren 108. artikuluan xedatutako moduren batean eratu ahal izango da, Gordailu Kutxa Orokorrean eratu beharrik gabe.

Abal gisa emanez gero, abala agiri honetako **I. eranskinean** dagoen ereduarekin bat etorriz egin beharko da.

Bermea eratu dela bitarteko elektronikoen bitartez ziurtatu ahal izango da.

Kontratistari eska dakizkiokeen penalizazioak edo kalte-ordainak behin betiko bermearen gainean gauzatzen badira, kontratistak berme hori birjarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, hamabost egun naturaleko epean, bermea exekutatzen denetik; bestela, hori egiten ez badu, kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

Kontratua aldatzearen ondorioz kontratuaren prezioa aldatu egiten bada, bermea egokitu egingo da, prezio berriarekiko dagokion proportzioa izan dezan. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea aldatzeko, kontratua aldatzeko erabakia jakinarazten zaionetik hasita.

Bermea SPKLren 111. artikuluan xedatutakoari jarraiki itzuliko da, berme-aldia amaitu eta kontratistak kontratuko betebehar guztiak bete ondoren.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratatzaileak aldeko txostena eman beharko du aurretik.

Klausula honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Honako hauek egin ahal izango dute kontratua erakunde kontratatzailearekin: pertsona natural zein juridiko espainiar edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, SPKLren 71. artikuluan jasotako kontratatzeko inolako debekurik ez badute, lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean erregistratuta badaude, eta agiri honetan eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badituzte.
Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresak beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango du, haiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badu kontratua exekutatzen den bitartean kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta baliatzen duen erakundeak ez duela kontratatzeko debekurik SPKLren 75. artikuluaren arabera.
Gainera, lizitatzaileek kontratu honen xede diren obrak exekutatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridiko bat kontratu baten esleipendun izan daiteke, baldin eta kontratu horren prestazioak pertsona juridiko horren jardueraren helburu, xede eta arlokoak baldin badira, pertsona juridiko horren estatutu edo arau eratzaileen argitara.

Erakunde kontratatzailearekin kontratuak egiteko gaitasuna izango dute, nolanahi ere, Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoek, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dena delako prestazioa egiteko gaituta badaude, eta SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Era berean, enpresak ezarrita dauden estatuko legediak ezartzen badu prestazio hori eman ahal izateko baimen berezi bat behar dutela edo erakunde jakin bateko kide izan behar dutela, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko akordioetatik eratorritako Espainiaren betebeharrak aplikatzeari kalterik egin gabe, Europar Batasuneko estatuetakoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak ez diren pertsona fisiko edo juridikoek txosten baten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen pareko sektore publikoko erakundeekin egiten diren kontratazioetan, funtsean modu analogoan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.

Karatulako 10. puntuan hala adierazten bada, Europar Batasunetik kanpoko enpresa bat kontratuaren esleipendun gertatuz gero, Espainian sukurtsal bat ireki beharko du, bere eragiketetarako ahaldunen edo ordezkarien izendapenarekin, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko du.
Prestazio hori emateko aldi baterako osatzen diren enpresaburuen elkarteek kontratuak egin ahal izango dituzte erakunde kontratatzailearekin; ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua esleitzen zaien arte, SPKLren 69. artikulua aplikatuko baita.

Lizitatzaileek kaudimen ekonomiko eta finantzario, profesional edo teknikoko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte, edo, hala badagokio, **karatulako 10. puntuan** adierazitako taldean, azpitaldean eta kategorian sailkatuta egon beharko dute.

Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kide batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak diren enpresaburuei dagokienez, ez zaie sailkapenik eskatuko, nahiz bakarka nahiz elkarte baten partaide gisa aurkeztu kontratuaren lehiaketara; halere, beren kaudimena egiaztatu beharko dute.

Hala badagokio, lizitatzaileek **karatulako 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak, gutxienez, atxiki beharko dizkiote kontratua exekutatzeko lanei.

Horrez gain, lizitatzaileek **karatulako 10. puntuan** adierazitako betekizun espezifikoak bete beharko dituzte.

Lizitatzaileei kontratuaren exekuzioari giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk atxikitzeko konpromisoa eskatuz gero, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko da SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

Kontratua suntsiarazi ordez, kontratistak kontratu baten exekuzioari atxikitako pertsona bat alde bakarrez aldatzea erabakitzen badu, erakunde kontratatzaileak konprometitutako pertsona hori berehala atxikitzea eskatu dezake, edo bestela, kontratistaren esku ez dauden arrazoirengatik hori ezinezkoa bada, aldatu den pertsona berehala ordezteko, prestakuntza eta esperientzia bera duen

pertsona batez. Pertsona horrek erakunde kontratatzailearen berariazko adostasuna izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileek beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu ahal izango dira, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta frogatzen badute kontratuaren indarraldi osoan benetan kaudimen eta/edo bitarteko horiek izango dituztela, eta baliatzen duen erakundeak kontratatzeko debekurik ez duela.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek EKAB bat aurkeztu beharko dute horietako bakoitzeko (**II. eranskina**).

Horrez gain, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, beharrezko baliabideak izango dituela frogatu beharko du. Horretarako, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du (**III. eranskinean** jasotako ereduaren arabera egina).
Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa ziurtatzeko baliatzen duen/dituen erakundeak/erakundeek notarioaren aurrean egiaztatu beharko du/dute konpromiso hori, honako hauek adierazita: zehaztasun osoz ezagutzen dituela/dituztela lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzak; aipatutako kaudimena eta/edo atxiki beharreko baliabideak dituela/dituztela (hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du/dute, 17. klausulan xedatutako moduan); eta adierazi beharko du/dute lizitatzaile horren esku jarri nahi dituela/dituztela, esleipendun suertatuz gero, kontratua exekutatzeko behar diren baliabideak (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta, eta erakunde kontratatzaileak berariaz baimendu beharko du baliabide horiek ordeztea edo aldatzea). Idazki hori aurkeztearen ondorioa da erakunde kontratatzaileak konpromiso hori onartzen duela, baldin eta lizitatzailea esleipendun suertatzen bada.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak konpromiso hori 7 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du, kontratazio-organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Klausula honetan aipatzen diren gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko inguruabarrek eskaintzak aurkezteko azken egunean indarrean izan beharko dute, eta kontratua perfekzionatzeko unean ere iraun beharko dute.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. BALDINTZA-AGIRIA ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Administrazio-klausula partikularren agiria eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri izango dira erakunde kontratatzailearen webguneko *Kontratatzailearen profila* atalean, lizitazio-iragarkia argitaratzen den datatik hasita, proposamenak aurkezteko epe osoan.

Plegua, karatula edo proiektuari buruzko zalantzak izanez gero, udal elkartearekin harremanetan jarri beharko da eta ez proiektuaren idazlearekin.

Egindako kontsultak eta haien erantzunak kontratatzaileen perfilean argitaratuko dira, lizitatzaile guztiak jakinaren gainean egoteko.

13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Proposamenak aurkezteko, bitarteko elektronikoak erabiliko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunekin bat etorriz, salbu eta SPKLren xedapen gehigarri horren 3. paragrafoan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen bada eta **karatulako 11.1 puntuan** hala adierazten bada.
Lizitatzaileak edo haren ordezkariak lizitazio- eta kontratazio-sistema elektroniko hori erabiliko du parte hartzeko proposamenak eta eskaerak aurkezteko, **IV. eranskinean** jasotako jarraibideen arabera, eta proposamenak aurkezteko ezarritako epearen azken egunera arte aurkeztu ahal izango dira. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

Dokumentazioa entregatu ondoren, ezin izango da kendu. Ez dira onartuko agiri honetan artxibo elektroniko bakoitzerako adierazitakoaz bestelako dokumentazioa duten artxibo elektronikoak dituzten proposamenak.

Epea: Proposamenak hogeita sei (26) egun naturaleko epean aurkeztuko dira, lizitazio-iragarkia kontratistaren profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lizitatzaileek adierazi beharko dute eskaintzetako zein dokumentu (edo dokumentu-atal) edo datu diren "konfidentzialak". Ez dira onargarriak izango eskaintzako dokumentu edo datu guztien konfidentzialtasun-adierazpen orokorrak. Konfidentziala dela argi eta garbi adierazi beharko da izaera hori duen dokumentuan bertan (gaininprimatuta, bazterrean adierazita, edo argi eta garbi identifika daitekeen beste edozein modutan), eta, gainera, izaera hori justifikatzen duten arrazoiak adierazi beharko dira. Ez dira konfidentzialtzat joko lizitatzaileek berariaz konfidentzialtzat jo ez dituzten dokumentuak.

Lizitatzaileek zuzendu egin beharko dute parte hartzeko baldintzak betetzen direla adierazteko aurkeztu dituzten erantzukizunpeko adierazpenak, kontratazio-organoaren edo kontratazio-mahaiaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen badute, aurkeztu ez badira edo aurkeztutakoak behar bezala bete ez badira. Era berean, esleipendun gisa proposatutakoak aukera izango du kontratua esleitu aurretik eskatzen zaizkion parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko falta zaizkion agiriak aurkezteko edo osorik aurkeztu ez dituenak osatzeko.

Bi kasuetan, 3 egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaileari, zuzenketa horiek egiteko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskatutakoa epearen barruan zuzentzen ez bada, organoak, edo, hala badagokio, kontratazio-mahaiak, ulertuko du lizitatzaileak bere eskaintzan atzera egiten duela.

13.3. FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenek agiri honetara eta karatulara, exekuzio-proiektura eta gainerako kontratu-dokumentaziora egokitu beharko dute, eta horiek aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Fitxategi elektroniko bakoitzak ondoren adierazten diren dokumentuak izango ditu, eta fitxategian jasotako dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

Proposamena HIRU FITXATEGI ELEKTRONIKOTAN aurkeztuko da, eta fitxategi bakoitzaren barruan haren edukia jasoko da fitxategi independente batean, ondoren adierazten dena zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua):

1. Gutun-azala. "AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek aurretiazko betekizunak betetzeari buruzko dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB): SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, **II. eranskinean** jasotako jarraibideen arabera bete beharrekoa. Eranskinean dagoen eredua erabiliko da, eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatu beharko dute. Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, EKAB bat aurkeztu beharko du erakunde horietako bakoitzeko.

  Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, EKAB bat aurkeztu beharko du erakunde horietako bakoitzeko.

- Aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartuta aurkeztu nahi duten enpresaburuek honako hauek adierazi behar dituzte: elkarte hori osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zenbatekoa den, eta esleipendun izanez gero aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela. Aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartuta aurkeztu nahi duten enpresaburuek erantzukizun solidarioa izango dute, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaldun horrek kontratuak sorrarazitako eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko adinako ahalorde askietsiak izan beharko ditu, kontratua amaitu arte, zenbateko handiak kobratzeko eta ordaintzeko eman daitezkeen ahalorde mankomunatuen kaltetan izan gabe. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere EKAB agiria aurkeztu beharko du. Agiri honen **V. eranskinean,** aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoaren eredua dago.

OHARRAK:

1. Erakunde kontratatzaileak lizitatzaileei eskatu ahal izango die justifikazio-agiri guztiak edo batzuk aurkez ditzatela, 1. puntuan adierazitako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudela uste badute edo prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa bada.

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Kontratisten Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean – enpresaren espediente birtual gisa –, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurrekalifikazio-sistema batean agertzen bada, eta aipatutako organoek datu horiek doan eskuratu baditzakete, ez du aurkeztu beharrik izango toki horietan inskribatutako datuei buruzko justifikazio-agiririk edo bestelako froga dokumentalik.

2. Eskaintzan jasotako datu pertsonalak tratatzeko baimena eta, kontratuaren esleipendun izanez gero, datuen tratamenduari buruzko kontratua sinatu eta betetzeko konpromisoa, tratamenduaren arduradun den aldetik, baldintza-agiri honen **VII. eranskineko** ereduaren arabera.

2. gutun-azala. " BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO KUANTIFIKAZIOA DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek honakoa dokumentazioa aurkeztuko dute bertan: **Karatulako 11.2 puntuan** adierazitako balio-judizioaren arabera kuantifikatutako irizpideei buruzko dokumentazioa.

OHARRAK

1. Lizitatzaileak arreta berezia jarri beharko du gutun-azal honetan sartu beharreko dokumentazioa prestatzean, eta edukiari buruz emandako argibideak bete beharko ditu. Era berean, ezin izango da eskaintzaren alderdi ekonomikoei buruzko orientabiderik emateko edo alderdi horiek ezagutarazteko balio dezakeen erreferentziarik egin.

2. Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak ez dira onartuko, eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

3. gutun-azala. "FORMULAK ERABILIZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkezteko, lizitatzaileek agiri honetako **VI. eranskinean** dagoen ereduaren arabera egin beharko dute hori.

Unitate-prezioen zerrenda erantsiko da, exekuzio materialaren kontzeptu gisa, eta prezio horiek izango dira kontratua exekutatu bitartean indarrean egongo direnak.

Erakunde kontratatzaileak egiaztatu ahal izango du hiru gutun-azaletan jasotako dokumentuen edukia egiazkoa dela, bai esleipenaren aurretik, bai ondoren, eta enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak izanez gero, kontratua deuseztatzeko arrazoia izan daiteke, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik.

14. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Esleitzeko irizpideak, dagokien haztapenarekin, **karatulako 12. puntuan** adierazitakoak izango dira.

15. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-organoak ebaluazio-batzorde baten laguntza izango du. Batzorde hori **karatulako 13. puntuan** adierazitako kideek osatuko dute.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak onartzeko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaia eratuko da, administrazio dokumentazioa jasotzen duen gutun-azala irekitzeko. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsak edo omisioak ikusten baditu, interesdunei jakinaraziko die, eta gehienez hiru egun naturaleko epea emango die lizitatzaileek zuzendu edo konpon ditzaten, edo argibide edo agiri osagarriak aurkez ditzaten.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Mahaiak erabakiko du zein enpresa onartu diren lizitaziorako, zein baztertu diren eta zergatik baztertu diren, dagokionaren arabera.

Gehienez ere zazpi eguneko epean, dokumentazioa irekitzen denetik zenbatzen hasita, balio-judizio baten (2 gutun-azalaren) arabera haztatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa duten gutunazalak irekiko dira, eta balorazioaz arduratzen den organoari emango zaio haietan jasotako dokumentazioa, eta egindako guztia agiri bidez jasoko da.

Balio-judizio baten arabera kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioaren azterketa eta balorazioa egin ondoren, 3. gutun-azala irekiko da (formulak erabiliz ebaluatuko diren irizpideei buruzko dokumentazioa), ekitaldi publiko batean.

Kontratatzailaren profilean argitaratuko da, data ordu eta lekutan egingo den 3. gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikoa.

Ekitaldi publiko horretan, 3. gutun-azala ireki aurretik, balio-judizio baten arabera kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza emango zaie lizitatzaileei.

Hori egin ondoren, 3. gutun-azala irekiko da (formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa), dokumentazio horren azterketa eta balorazioa egiteko.

Kontratazio mahaiak baztertu egingo ditu administrazio-klausula partikularren agiriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak, eta kontratazio-organoari helaraziko dio aurkeztutako proposamenen zerrenda, puntuazio handienetik txikienera sailkatuta, **karatulako 12. puntuan** ezarritako esleipen-irizpideen arabera, eta eskaintzarik onena identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik, kontratazio mahaiak egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza, **karatulako 12. puntuan** adierazitako parametroen arabera, anormalki baxua dela uste bada, kontratazio mahaiak SPKLren 149. artikuluan xedatutako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan horretarako egindako errekerimendua bidali eta 5 egun balioduneko epean.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde erakunde kontratatzailearen aurrean. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu kontratua esleitzen egindako proposamenaren arabera, erabakia arrazoitu beharko du.

9/2017 Legearen 133. artikuluaren arabera, Udal Elkarteak ez du zabalduko enpresaburuek, **VIII. ERANSKINA** erabilita, eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jo duten informazioa.

Konfidentzialak dira, besteak beste, sekretu teknikoak edo komertzialak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lizitazio-prozedura honetan edo geroagoko beste batzuetan lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio.

Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun-betebeharra ezin izango da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osora. Era berean, egindako eskaintza ekonomikoa ez da inola ere konfidentziala izango.

17. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Esleipenerako hautatutako lizitatzailea aukeratzean, kontratazio-organoak, oro har, kontratazio mahaiak egindako proposamenarekin bat etorri beharko du. Bestela, kontratazio-organoak arrazoitu egin beharko du proposamenarekin bat ez etortzeko erabakia, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egingo du.

Kontratazio-organoak kontratazio mahaiaren proposamena onartu ondoren, erakunde kontratatzaileak zazpi egun balioduneko epea emango dio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezan:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean erakunde kontratatzailearekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintza guztiak eta agiri honetako 12. klausulan eskatzen diren gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, jarraian adierazten den moduan.

   Proposamena aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresaburuek egin badute, aipatutako dokumentazioak elkarte hori osatuko duten enpresa guztiei buruzkoa izan beharko du.

(i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eratze-eskrituraren edo -agiriaren, estatutuen edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da. Aurkezten diren agiri horiek enpresaburu horien jarduera arautzen duten arauak jasota beharko dituzte, eta, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko dute.

- Espainiakoak ez diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak badira, dagokion erregistroan inskribatuta egotearen bidez egiaztatuko da, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiri bat aurkeztuta, Erkidegoko xedapen aplikagarrien arabera.

- Gainerako enpresaburu atzerritarrek beren estatuan dagoen Espainiaren Diplomazia Misio Iraunkorrak edo enpresaren helbideari dagokion lurralde-eremuko Kontsuletxeko Bulegoak egindako txosten bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna. Txosten horren bidez, justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea Administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen parekoak diren sektore publikoko ente, organismo edo entitateekin egiten diren kontratazioetan, modu funtsean analogoan.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionala edo dagokion estatuko agiri baliokidea aurkeztuta egiaztatuko da.

- Beste baten izenean eskaintzak aurkezten edo sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta ordezkari gisa jarduteko ahalorde askietsia aurkeztu behar dituzte. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du, hala eskatzen denean Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluaren arabera, edo, hala badagokio, pertsona juridikoaren motaren arabera dagokion Erregistro Publikoan.

Aurkezten diren agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira, edo behar bezala konpultsatutako kopiak.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatutako lizitatzaileek erregistro horren letraduak egindako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, atal honetan adierazitako dokumentazioaren ordez (i). Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, lizitatzaileak sinatua, dokumentuan jasotako inguruabarrak aldatu ez direla adierazteko.

(ii) Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa, edo, hala badagokio, agiri honetako 12. klausulan eskatutako sailkapena egiaztatzen duena.

- <u>Ekonomia- eta finantza-kaudimena</u>. Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honako hauen bidez egiaztatuko da:

- Onartutako urteko kontuak, Merkataritza Erregistroan aurkeztuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Merkataritza-erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek merkataritza-erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.
- Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzailearen negozio-bolumena adieraziz.

- Kaudimen tekniko edo profesionala. Hala badagokio, eskatutako kaudimena egiaztatzeko, azken bost urteetan exekutatutako obren zerrenda bat egingo da, behar bezala exekutatu izanaren ziurtagirien bidez bermatua. Ziurtagiri horietan, obren zenbatekoa eta obrak egiteko datak eta tokia adieraziko dira, eta zehaztuko da lanbidea arautzen duten arauen arabera egin al ziren eta normaltasunez burutu al ziren.

  500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetan, kontratista enpresa sortu berri bat denean, hau da, bost urtetik beherako antzinatasuna duenean, kaudimen teknikoa SPKLren 88.1 artikuluaren b) eta f) bitarteko letretan aipatzen diren bideetako baten edo batzuen bidez egiaztatuko da, eta ez da inola ere aplikatuko artikulu horren a) letran xedatutakoa (obra-kopuru jakin baten exekuzioari buruzkoa da).

- Sailkapena. Hala badagokio, eskatutako sailkapena egiaztatzeko, organo eskudunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta horrekin batera, lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, sailkapena indarrean dagoela eta ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adierazten duena. Esleipenduna izanez gero, adierazpen hori kontratua formalizatzeko dokumentuan errepikatu beharko da.

  Ziurtagiriak egiaztatu beharko du lizitatzailea zehaztutako taldean eta azpitaldean sailkatuta dagoela, aipatutako kategoria berean edo hortik gorakoan.

  Ziurtagiri horrek, halaber, klausula honetako 1. (i) paragrafoan aipatutako inguruabarrak egiaztatu ahal izango ditu, hau da, lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna eta, hala badagokio, haren ordezkaritza.

(iii) Lizitatzaileak SPKLren 71. artikuluan xedatutako kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatzen duen epaile aurreko lekukotza edo administrazio-ziurtagiria.

Eskumena duen agintaritzak agiri hori egin ezin badu, administrazio-agintaritzaren, notario publikoaren edo erakunde profesional kualifikatuaren aurrean egindako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da.

(iv) **Karatulako 10. puntuan** adierazitako betekizun espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Lizitaziora Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Europako Esparru Ekonomikoa sinatu duen estatu bateko enpresaburu atzerritarrak aurkezten badira, haien gaitasuna, kaudimena eta debekurik eza egiaztatu ahal izango da, dela estatu kide bateko operadore ekonomiko baimenduen zerrenda ofizialean kontsulta eginda, dela alderdi horiek betetzen direla egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztuta.

2. Hala badagokio, kontratuari atxikitzeko konprometitutako giza baliabideak eta baliabide

materialak benetan badituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i) Kontratua exekutatzeari atxikitako konprometitutako giza baliabideei dagokienez, hala badagokio, hautatutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua exekutatzeari atxikitako talde osoaren identifikazio nominala, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten curriculum vitaeko fitxekin batera:
    1. Titulazio akademiko ofiziala.

    2. Esperientzia, dagokion arloan.

    3. Hala badagokio, erakunde kontratatzaileak eskatutako beste edozein alderdiri buruzko informazioa.

- Giza baliabide horiek guztiak benetan baliatu daitezkeela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudian xedatutakoarekin bat etorriz, eta aipatutako giza baliabideei buruzko dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, honako hauek adierazten dira: (i) informazio hori biltzeak eta erabiltzeak berekin ekarriko du aukeratutako lizitatzaileak datuen tratamendua egitea, tratamenduaren arduradun gisa; eta (ii) informazio hori erakunde kontratatzaileari ematea, klausula honetan xedatutakoa betez, lizitatzaileak datuak komunikatzea ekarriko du, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan aipatutako datu-tratamenduari eta -komunikazioari dagokionez, hautatutako lizitatzaileak bete egin beharko ditu datuak babesteari buruzko araudi aplikagarrian xedatutako betebeharrak. Bereziki, eta tratamendu-arduradun gisa bete beharreko beste edozein betebeharren kalterik gabe, lizitatzaile horrek interesdunen baimen informatua lortu beharko du, datuen komunikazio hori ahalbidetzeko, erantzukizun oso-osoa bere gain hartuta, eta hori behar bezala egiaztatu beharko du erakunde kontratatzailearen aurrean, hala eskatzen zaionean.

(ii) Kontratuaren exekuzioari atxikitzeko konprometitutako giza baliabideei dagokienez, hala badagokio, hautatutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratuaren exekuzioari atxikitako baliabide materialen identifikazioa, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

- Giza baliabide horiek guztiak benetan erabil daitezkeela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko eskubidea, edo, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko, beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko eskubidea.

3. Baldintza-agiri honetako 11. klausulan xedatutako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario-akta (**III. eranskinean** jasotako ereduaren arabera), baldin eta lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratuta dagoela egiaztatu beharko du, eta aldi baterako enpresa-elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko du

(kontratutik eratortzen diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izan beharko ditu kontratua azkendu arte).

6. Lan-arriskuen prebentzioa: **IX. eranskinean** adierazitako dokumentazio guztia.

Erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko eskubidea, edo, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko, beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko eskubidea.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akatsik ikusiz gero, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari, akats horiek zuzentzeko.

Adierazitako epean dokumentazio-errekerimendua behar bezala betetzen ez bada edo aurkeztutako dokumentazioan zuzendu ezin diren akatsak edo omisioak badaude, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ri dagokion zenbatekoa eskatuko zaio (BEZ kanpo), penalizazio gisa, eta dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera.

Kontratazio-organoak bost egun naturaleko epean esleituko du kontratua, dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta gehienez ere 2 hilabeteko epean, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita.

Kontratazio-organoak erabakiko du esleipena, ebazpen arrazoituaren bidez, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, haiek jakinarazpenak jasotzeko izendatutako bitartekoaren bidez, eta erakunde kontratatzailearen webguneko *Kontratatzailearen profila* atalean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA PERFEKZIONATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean perfekzionatuko da.

Kontratua agiri pribatu batean formalizatuko da, eta dokumentu hori lizitazioaren baldintzetara egokituko da zehatz-mehatz. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezin izango da inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Dena dela, esleipendunak eskatu ahal izango du kontratuaren eskritura publikoa egiteko. Horrela baldin bada, esleipendunak ordainduko ditu eginbide horren kostuak.

Lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena egin eta hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da kontratua.

Kontratuaren formalizazioa kontratua burutu eta gehienez ere hamabost egun naturaleko epean argitaratuko da, erakunde kontratatzailearen webguneko *Kontratatzailearen profila* atalean, dagokion kontratuarekin batera.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua epe horren barruan formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZ kanpo, penalizazio gisa, eta, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontura kobratuko da, SPKLren 71. artikuluko 2) apartatuko b) letran ezarritakoa ezertan galarazi gabe. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatu diren ordenaren arabera. Horretarako, baldintza-agiri honetako 17. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du aurretik, eta zazpi egun balioduneko epea emango zaio hori egiteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA

Zuzendaritza fakultatiboak kontratuaren arduradunaren eginkizunak beteko ditu, eta hari dagokio kontratuaren exekuzioa gainbegiratzea, bai eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko behar diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea ere, erakunde kontratatzaileak esleitzen dizkion eskumenen esparruan.

Kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

20. ZUINKETA EGIAZTATZEKO AKTA

Zuinketa egiaztatzeko akta 15 egun naturaleko epean egingo da, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita.

Zuinketa egiaztatzeko aktak zuinketa exekuzio-proiektuko kontratu-dokumentuekin bat datorren edo ez adieraziko du, eta bereziki eta berariaz aipatuko ditu obraren ezaugarri geometrikoak, okupatu behar diren lursailak okupatzeko baimena eta kontratua betetzeari eragin diezaiokeen beste edozein puntu.

Aktaren ale bat erakunde kontratatzaileari bidaliko zaio; beste bat, kontratistari; eta beste bat, berriz, zuzendaritza fakultatiboari.

Ezin izango da lanak egiten hasi zuinketa egiaztatzeko akta egin gabe, edo aktan oinarria duten hainbat gorabehera edo zalantza jasotzen badira. Azken kasu horretan ez dira lanak hasiko, edo bertan behera geldituko dira behin betiko.

Edonola ere, ezin izango da obra hasi laneko segurtasun- eta osasun-plana aurretik onartu gabe.

21. KONTRATUAREN EXEKUZIOA

Kontratuaren exekuzioan, baldintza hauek bete beharko dira:

- Kontratua exekutatzean, kontratistak kontratuan jasotako baldintzak bete beharko ditu, administrazio-klausula partikularren agiri honetan eta karatulan, exekuzio-proiektuan eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoarekin bat etorriz. Zuzendaritza fakultatiboak, kontratua interpretatuz, ematen dizkion jarraibideak ere bete beharko ditu kontratistak.

- Kontratua exekutatzean, halaber, lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapen aplikagarriak bete beharko dira.

  Testuinguru horretan, 2. gutun-azalean (balio-judizioaren araberako kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioa), lizitatzaileek adieraziko dute zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei, esleipendun gertatzen badira. Kontratistak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikagarritzat jotzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-ebazpenean sartuko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

  Horrez gain, kontratua esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz behar den informazio guztia eman beharko du kontratistak.

  Kontratua exekutatzen den bitartean, langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako soldatak ordainduko dira, langile bakoitzari dagokion lanbide-

kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldatak ez dira inola ere izango hitzarmen kolektiboan ezarritakoak baino txikiagoak.

Paragrafo honetan xedatutakoa exekuzio-baldintza berezia eta funtsezko kontratu-betebeharra da SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

- Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara exekutatuko da.

- Obraren exekuzioari atxikitako langileak kontratistaren mende egongo dira soil-soilik, eta kontratistak enpresaburu gisa dagozkion eskubide eta betebehar guztiak izango ditu.

  Era berean, kontratistaren erantzukizuna izango da bere langileek laneko segurtasun, higiene eta osasunaren arloan indarrean dagoen araudia eta kontratazio-organoak eman dezakeen funtzionamendu orokorreko araudia betetzea.

  Enpresa kontratistak, oro har, enplegatzaile gisa dagozkion betebehar guztiengatik erantzun beharko du, eta haren zein azpikontratisten eta langileen artean dagoen lan-harremana edo beste era batekoa (halakorik balego, eta langileentzako hobea balitz soilik) arautu eta garatzen duten arau guztiak ere bete beharko ditu, eta ezin izango dio erakunde kontratatzaileari jasanarazi organismo eskudunek arau horiek urratzeagatik ezarri ahal dioten isun, zigor edo erantzukizunik. Kontratistaren erantzukizuna izango da xedapen horiek guztiak betetzen direla zaintzea, bai eta erakunde kontratatzaileari edozein gorabeheraren berri ahalik eta lasterren idatziz jakinaraztea ere.

  Kontratista izango da erantzule bakarra kontratua exekutatzen ari diren langileekin lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judizialak edo judizioz kanpokoak), baita azpikontratazioen kasuan ere, eta erakunde kontratatzaileak ez du hartuko bere gain kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen duen inongo erantzukizunik, lanari (segurtasuna, higienea eta laneko osasuna barne), Gizarte Segurantzari edo zergei dagokienez. Era berean, kontratistak kontratua exekutatzean gerta daitezkeen ezbeharrekiko erantzukizuna baino ez du hartuko bere gain.

- Nolanahi ere, erakunde kontratatzaileak zerbait ordaindu behar izango balu, enpresa kontratistak hemen ezarritako betebeharrak bete ez dituelako, kontratistak zenbateko hori ordaindu beharko dio erakunde kontratatzaileari, kalte-ordain gisa, hori ebazpen judizialean edo administratiboan ezarri bada ere.

- Kontratistak ingurumen-arloko araudi aplikagarri guztia bete beharko du, bereziki eraisketetako hondakinen kudeaketari dagokionez.

- Kontratista behartuta egongo da obrak exekutatzera ez ezik, kontserbatzera ere, eta, obra-harrera egin arte, bertako lurrak eta haietan kokatutako ondasunak zaintzeaz arduratuko da.

- Kontratistak bete egin beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutako betebeharrak –aurrerantzean, DBEO; pertsona fisikoen babesa arautzen du, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez–, bai eta kontratua indarrean dagoen bitartean datu-babesaren arloan aplikagarri den beste edozein arautan xedatutakotik ondorioztatzen diren betebeharrak ere, bere jardueren esparruan eta bere kabuz eta erabakiz egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik, tratamendu horren arduraduna den aldetik.

  Betebehar horrek ez du eragotziko **karatulako 17. puntuan** berariaz ezarritakoa, datu pertsonalak erakunde kontratatzailearen izenean tratatzeari dagokionez.

- Kontratistak **karatulako 14. puntuan** berariaz adierazten diren baldintzak bete beharko ditu.

22. FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Funtsezko kontratu-betebeharrak honako hauek izango dira:

- Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, haren klausuletan, agiri honetan eta exekuzio-proiektuan ezarritakoaren arabera.

- Obra agiri honetan ezarritako epean, eta, hala badagokio, baldintza-agiri honetan eta kontratistaren eskaintzan ezarritako epe partzialetan exekutatzea, esleipendunak, hala badagokio, proposatutako lan-programa eta obra-plana betez.

- Hala badagokio, gainerako kontratistekin koordinazio zehatza eta puntuala izatea, agiri honetan adierazitako moduan, eta zuzendaritza fakultatiboak ondorio horietarako ematen dituen jarraibideak betetzea.

- Kontratuaren exekuziora konprometitutako giza baliabideak atxikitzea, eskaintzan halakorik zehaztu bada, bai eta obra epean behar bezala gauzatzeko behar diren ekipamendua, makineria eta bitarteko lagungarriak zein zuzendaritza fakultatiboak idatziz agintzen dizkionak jartzea ere. Kontratistak obra exekutatzean erabiltzen dituen material guztiek bat etorri beharko dute exekuzio-proiektuan zehaztutakoekin eta eskaintzan adierazitakoekin, eta, nolanahi ere, zuzendaritza fakultatiboak onartu beharko ditu, eta normalizatuak eta berme tekniko aitortukoak izan beharko dute. Material horiek erosi aurretik, kontratistak materialen laginak aurkeztuko ditu, zuzendaritza fakultatiboak onar ditzan. Zuzendaritza fakultatiboak baztertu ahal izango ditu bere ustez baldintza egokiak betetzen ez dituzten guztiak.

- Erakunde kontratatzailearen baimena lortzea, aldez aurretik eta berariaz, ezagutza eta/edo trebetasun tekniko kualifikatuak behar dituzten lanei atxikitako teknikariak aldatzeko –proposamen teknikoan berariaz eta izaera horrekin adierazitakoak–, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake haien exekuzioan.

- Lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren indarreko legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea, agiri honetako 21. klausularen bigarren gidoian jasotako baldintzetan. Testuinguru horretan, kontratua exekutatzen den bitartean, kontratistak langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako soldatak ordaindu beharko dizkie, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldatak ez dira inola ere izango hitzarmen kolektiboan ezarritakoak baino txikiagoak.

- Behin betiko bermea mantentzea eta berrezartzea.

- Kontratua exekutatu bitartean, gutxienez, agiri honetako 24. klausulan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguruak kontratatzea edo mantentzea.

- Kontratua exekutatzeko egin behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien zuzeneko eta zeharkako kalte-galerengatiko kalte-ordainak ematea.

- Obran dauden langileak berehala kentzea eta ordezkatzea, baldin eta lana behar bezalako arduraz eta eraginkortasunez betetzen ez badute, gaitasunik ez badute, bere zereginetan arreta gutxi jartzen badute edo kontratuaren martxa onerako kaltegarriak diren ekintzak

egiten badituzte. Hori guztia, gehienez ere, hogeita lau orduko epean, zuzendaritza fakultatiboak errekerimendua egiten duenetik aurrera.

- Era berean, kontratistak berehala ordezkatu beharko ditu langileak, hala behar denean, gaixotasunagatiko bajek, oporrek, baimenek, lizentziek, istripuek eta abarrek eragindako lanuzteak betetzeko, eta kontratua benetan eta etengabe exekutatzen dela bermatuko du.

- Zuzendaritza fakultatiboak erabakitzen dituen obra-bilera guztietara joatea, lanen martxa egokia ahalbidetzeko eta gainerako lanbideekin koordinatzeko.

- Jarduera gauzatzeko eta lanak egiteko behar diren baimenak lortzea, bai eta udal-baimenak kudeatzea ere, bereziki aldamioak, pasabideak eta hesiak jartzeko, hartuneetarako galtzadak irekitzeko, garabiak muntatu eta funtzionamenduan jartzeko eta abarrerako behar liratekeenak, bai eta tasak eta horiek guztiak direla-eta sortutako gainerako zergak eta gastuak ordaintzea ere.

- Erakunde eskudunetan aurkeztu behar diren proiektuak idatzi eta ikus-onestea, honako hauen alta eta funtzionamendu-baimena lortzeko: sare eta zerbitzuetarako konexioak, behin-behineko eta behin betiko hartuneak, eta, oro har, instalazioen funtzionamendu egoki eta legeztatua izateko behar den guztia. Arrazoi horrek eragindako gastuak ordaindu beharko dira.

- Obrak egiten diren bitartean eta berariaz urbanizazioaren gainean sortzen diren kalteak konpontzea eta dagokion elementuak birjartzea.

- Obraren amaierako egoerari buruzko dokumentazioa eta instalazio eta ekipoei buruzko dokumentazio teknikoa zein dagozkion funtzionamendu-eskuliburuak eta erabilera-jarraibideak prestatzea eta zuzendaritza fakultatiboaren esku jartzea.

- Lehendik zeuden egiturak desmuntatzea (zintarriak, farolak, barandak, etab.), bai eta arrapalak, eskailerak, jasogailuak eta ateak jartzea ere, makinak eta langileak sartzeko eta irteteko, obrak segurtasun- eta osasun-agirietan ezarritakoaren arabera egingo direla bermatzeko.

- Obrak exekutatzeko behar diren ekipo, elementu eta material guztiak pilatzea, fabrikatzea, hornitzea eta muntatzea.

- Erabiliko diren material eta instalazioetako elementu guztien laginak zuzendaritza teknikoari aurkeztu beharko zaizkio, onar ditzan, eta egokitzat jotzen dituen saiakuntzak egin beharko dira.

- Obrako etxolak instalatzea, mantentzea, babestea, konpontzea, kentzea eta birjartzea; behar beste hartune egitea (elektrizitatea, telefonoa, ura, etab.), eta horietatik eratorritako kontsumo-gastuak eta konponketa-gastuak ordaintzea, konpainia hornitzailearekin elektrizitatea, telefonoa, ura eta abar izateko dagokien buletinak lortu arte.

- Obrak identifikatzeko kartelak egitea, garraiatzea eta instalatzea, erakunde kontratatzaileak zehaztutako ezaugarriekin, gehienez ere hamabost egun balioduneko epean, zuinketa egiaztatzeko akta sinatzen denetik hasita; eta kartelak kentzea ere bai.

- Obretarako sarbidea adierazteko, lan-eremuan zirkulazioa adierazteko eta lanen martxak eragin ditzakeen arrisku-puntuak adierazteko behar diren seinaleak jartzea, eta pertsona eta ondasunetarako segurtasun-neurri egokiak hartzea.

- Obrak garbitzea eta hondakin eta objektu guztiak lurretik kendu eta garraiatzea; eta obrak exekutatzeko edo horien mugakide izateagatik okupatutako lursaila jatorrizko egoeran uztea.

- Obrak babestu, kontserbatu eta zaintzea, obra-harrera egin arte.

- Laneko arriskuen prebentzioaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko xedapenak betetzea.

- Ingurumen-arloko legedi aplikagarria betetzea.

- Hala badagokio, **karatularen 15. puntuan** berariaz adierazten diren betebeharrak betetzea.

Klausula honetan eta **karatulako 15. puntuan** xedatutako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211. f) artikuluan xedatutako ondorioetarako, eta, beraz, baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoa eta SPKLn esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz jasotako xedapenak alde batera utzi gabe, erakunde kontratatzaileak ezin izango du zabaldu lizitatzaileek eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jo duten informazioa. Konfidentzialak dira, besteak beste, sekretu teknikoak edo komertzialak, eskaintzen alderdi konfidentzialak, bai eta lizitazio-prozedura honetan edo geroagoko beste batzuetan lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio ere.

Kontratua exekutatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du kontratistak, baldin eta agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo, bere izaeragatik, isilpekotzat hartu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar hori **karatulako 17. puntuan** adierazitako epean mantenduko da.

24. ERANTZUKIZUNA ETA ASEGURUAK

Kontratista arduratuko da lanak behar bezala egiteaz, eta bere giza baliabideekin eta baliabide materialekin zainduko ditu lanak, obran bertan izango den arduradunaren zuzendaritzapean. Kontratistak bere kontura jarri beharko ditu obrarako sarbidea, lan-eremuetako trafikoaren erregulazioa eta gune horretan nahiz haren muga eta inguruetan egon daitezkeen arrisku-puntuak adierazteko behar diren seinaleak, eta obraren izaerak pertsona eta ondasunentzat eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak hartu beharko ditu.

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua exekutatzeko egin behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiengatiko kalte-ordainak ordaintzea, eta, bereziki, baldintza-agiri honetan eskatzen diren epe partzialak eta osoak ez betetzeagatik sor daitezkeenak.
Aurrekoa gorabehera, kontratistak **karatulako 18. puntuan** adierazitako aseguruak kontratatuko ditu bere kontura, lanek eta berme-aldiak irauten duten aldirako, bertan adierazitako moduan eta baldintzetan.

25. PENALIZAZIOAK

a) Atzeratzeagatiko penalizazioak.

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratu egiten bada baldintza-agiri honetan eta/edo karatulan jasotako betearazpen-epeetako edozein betetzeari dagokionez, erakunde kontratatzaileak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, baldintza-agiri honen 31. klausulan xedatutakoaren arabera, edo exekutatzen jarraitzea. Azken kasu horretan, erakunde kontratatzaileari dagozkion kalte-ordainak ordaindu beharko zaizkio, eta horrez gain, **karatularen 19. puntuan** adierazitako penalizazioak ere aplikatuko dira, erakunde kontratatzailearen alde.

Kontratu-jabea berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango erakunde kontratatzaileak aldez aurretik agindeia egitea.

b) Kontratatutako prestazioak gaizki exekutatzeagatiko edo beste edozein kontratu-baldintza ez betetzeagatiko penalizazioak.

Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak gaizki exekutatu baditu edo beste edozein kontratu-baldintza bete ez badu, erakunde kontratatzaileak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, baldintza-agiri honen 31. klausulan ezarritakoaren arabera, edo exekutatzen jarraitzea. Azken kasu horretan, erakunde kontratatzaileari dagozkion kalte-ordainak ordaindu beharko zaizkio, eta horrez gain, **karatularen 19. puntuan** adierazitako penalizazioak ere aplikatuko dira, erakunde kontratatzailearen alde.

Penalizazioak aplikatzeko, kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu behar zaizkion zenbatekoetatik kenduko dira, eta hortik ezin bada, bermetik kenduko dira, eta erreklamazioa egingo da bermetik gora gera daitezkeen zenbatekoengatik.

Nolanahi ere, kontratua suntsiaraztea zein jarraitzea aukeratzeko garaian, erakunde kontratatzaileak alde bakarrez erabaki ahal izango du kontratuarekin jarraitzea, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, beharrezkotzat jotzen duen denboran, eta bi kasuetan, jarraipena egitearen kostua kontratistari jasanaraziko dio, klausula honetan aurreikusitako kalte-galerengatiko kalte-ordainak eta gainerako ondorioei uko egin gabe.

26. KONTRATUAREN LAGAPENA

SPKLren 98. artikuluan xedatutako kontratistaren ondorengotza-kasuak alde batera utzita, kontratuaren aldaketa subjektiboa kontratuaren lagapenaren bidez soilik egin ahal izango da, klausula honetan ezarritako mugen barruan eta aukera hori **karatulako 20. puntuan** berariaz jasota badago.

Lagapena egiteko, SPKLren 214.2 artikuluaren a), b), c) eta d) letretan eskatutako baldintzak bete beharko dira. Honako hauek dira:

a) Kontratazio-organoak, aldez aurretik eta berariaz, lagapena baimentzea, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako moduan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da. Epe hori igarota erantzunik jaso ez bada, baimena eman dela ulertu beharko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 exekutatuta izatea, gutxienez, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako moduan.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko gaitasuna izatea, eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala izatea, eta kontratatzeko debekurik ez izatea, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako moduan.

d) Esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako moduan.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztiak lagapen-hartzaileari subrogatuko zaizkio.

27. AZPIKONTRATATZEA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoaren arabera, **karatulako 21. puntuan** adierazitako prestazioak izan ezik.
Kontratistak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu ondoren, eta, beranduenez, kontratua exekutatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta ordezkaria edo legezko ordezkariak adieraziz, eta behar bezala justifikatu beharko du azpikontratista kontratua exekutatzeko gai dela, dituen elementu teknikoei eta giza baliabideei eta esperientziari dagokienez, eta egiaztatu beharko du ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari kontratu nagusia exekutatzean informazio horrek izan dezakeen edozein aldaketa, bai eta azpikontratista berriei buruz beharrezkoa den informazio guztia ere.

Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, inguruabar hori jakinaraztea nahikoa izango da azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta hori beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati erantzuteko edo premiazko neurriak hartu behar badira, eta hori guztia behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean soilik izango dute erantzukizuna, eta hark hartuko du bere gain, beraz, kontratua exekutatzeko erantzukizun osoa erakunde kontratatzailearen aurrean, baldintza-agiriarekin, exekuzio-proiektuarekin eta kontratuaren baldintzekin bat etorriz, SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuei buruz duen ezagutzak ez du aldatuko kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa.

Azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak eta ordainketa horien egiaztapena SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

28. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan xedatutako kasuetan.

Horrez gain, kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du **karatulako 22. puntuan** berariaz adierazten bada aukera hori dagoela, bertan aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

Kontratuaren aldaketak eginda ere, ezin izango da kontratuan aurreikusi gabeko unitate-prezio berririk ezarri.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egin beharko dira.

29. OBRA-HARRERA ETA BERME-ALDIA

Kontratistak, kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta erakunde kontratatzailearen nahierara, prestazio osoa egin duenean joko da kontratua betetzat.

Karatulako 5. puntuan zenbait fase xedatzen badira, zatika eta modu independentean hartuko dira, klausula honetan adierazitakoarekin bat etorriz. Hori horrela, fase horietako bakoitza amaitzean, obra-harrera egiteko egintza bat egingo da, eta obrak egoera onean badaude eta aurreikusitako preskripzioen arabera, erakunde kontratatzaileak hartutzat joko ditu. Ez badaude hartutzat jotzeko moduan, hala jasoko da aktan, eta zuzendaritza fakultatiboak behatutako akatsak adieraziko ditu, jarraibide zehatzak emango ditu, eta akatsak zuzentzeko epea ezarriko du. Epe hori igarotakoan kontratistak ez badu esandakoa egin, beste epe luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua suntsitutzat joko da.

Hala ere, 25. klausulan xedatutakoa alde batera utzi gabe, erakunde kontratatzaileak dagokion penalizazioa ezarri ahal izango du, eta, eragindako kalte-galerek penalizazio horien zenbatekoa gainditzen badute, kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, exekuzio-epean izandako atzerapenagatik, dagokion faseko obrarekiko adostasuna ez dagoen bitartean.

Bestalde, obrak erabat amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan, eta, nolanahi ere, eragindako lursaila edo eremua jatorrizko egoerara itzuli ondoren, obra-harrera egingo da.

Baldin eta, obra-harrerako ekitaldian, obrak egoera onean badaude eta aurreikusitako preskripzioen arabera egin badira, erakunde kontratatzaileak hartutzat joko ditu, dagokion akta egingo da, eta, orduan, jarraian adierazitako berme-aldia hasiko da.

Ez badaude hartutzat jotzeko moduan, hala jasoko da aktan, eta zuzendaritza fakultatiboak behatutako akatsak adieraziko ditu, jarraibide zehatzak emango ditu, eta akatsak zuzentzeko epea ezarriko du. Epe hori igarotakoan kontratistak ez badu esandakoa egin, beste epe luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua suntsitutzat joko da.

Berme-aldia **karatulako 23. puntuan adierazten** da. Aldi horretan, obren kontserbazioa eta ager daitezkeen akatsen konponketak kontratistaren kontura izango dira, eta ez du eskubiderik izango horregatik inolako kalte-ordainik edo ordainketarik jasotzeko.

Berme-aldia bete aurreko hamabost egun naturaleko epearen barruan, zuzendaritza fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txostena idatziko du. Txostena aldekoa bada, kontratistak ez du jada erantzukizunik izango, hurrengo paragrafoan xedatutakoa izan ezik, eta bermea itzuli edo ezereztu egingo da. Txostena aurkakoa baldin bada eta atzemandako akatsak lanak behar bezala ez egitearen ondorio baldin badira (eta ez berme-aldian lanek izandako erabilpen arruntaren ondorio), zuzendaritza fakultatiboak behar diren jarraibideak emango dizkio kontratistari, akatsak konpontzeko. Hori egiteko epe jakin bat emango dio, epe horretan kontratistak obren zaintzaile izaten jarraituko du, eta ez du eskubiderik izango inolako ordainik jasotzeko berme-aldia luzatzeagatik.

Obra berme-aldia amaitu eta gero hondatzen bada, esleipendunak kontratua ez betetzearen ondorio diren eraikuntzako akats ezkutuengatik, esleipenduna erantzule izango da hamabost urteko epearen barruan sortutako kalte-galerengatik, obra hartzen denetik kontatzen hasita.

Epe hori igaro eta inolako kalte-galerarik ageri ez bada, kontratistaren erantzukizuna behin betiko amaituta geratuko da.

30. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, artikulu hori berariaz aplikagarritzat ezartzen da.

31. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua betetakoan edo suntsiarazita azkenduko da, jarraian araututakoaren arabera.

Honako hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak, erakunde kontratatzaileak hori egin nahi badu:

a) Konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea beste edozein prozeduratan.

b) Kontratista atzeratzea bete beharreko epeetan.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Funtsezko gainerako betebeharrak ez betetzea, hala sailkatu badira.

e) Prestazioa hasieran hitzartutako baldintzetan exekutatzea ezinezkoa izatea, kontratua agiri honetan xedatutako moduan aldatzerik ez dagoenean.

f) Kontratua exekutatzen den bitartean, kontratistak soldatarik ez ordaintzea kontratuan parte hartzen ari diren langileei, edo kontratua exekutatzen ari den bitartean langile horiei aplikatu behar zaizkien hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

g) Kontratistak obra abandonatzea; hau da, prestazioa emateari uztea edo prestazioa erakunde kontratatzailearen araberako irizpideei dagokien erregulartasunez ez ematea, edo kontratua epe barruan exekutatzeko konprometitutako bitartekoak erabili gabe ematea.

h) Lan- eta ingurumen-arloko xedapenak ez betetzea, eta kontratistak edo azpikontratatutako enpresek laneko arriskuen prebentzioaren, segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dagoen araudia eta segurtasun- eta osasun-azterlanean eta -planean ezarritakoa ez betetzea.

i) Oro har, edozein kontratu-betebehar ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan xedatutakoaren arabera.

j) Kontratua suntsiarazteko arrazoiak, SPKLren 245. artikuluan ezarritakoak, berariaz aplikagarritzat jotzen direnak, honako hauek izango dira:

    1. Zuinketaren egiaztapena arrazoi justifikaturik gabe berandutzea.

    2. Obren hasiera lau hilabete baino gehiago etetea.

    3. Erakunde kontratatzaileak obrak zortzi hilabete baino gehiagoz obrak etetea.

    4. Atzera egitea.

Klausula honetan xedatutako suntsiarazpen-arrazoietako edozeinetan, ebazpen hori automatikoki gauzatuko da, eta baldintza bakarra izango da erakunde kontratatzaileak kontratistari horretarako hartutako erabakia modu frogagarrian jakinaraztea.

Jakinarazpen hori jasotakoan, kontratistak berehala entregatu beharko dizkio erakunde kontratatzaileari, eta haren esku jarriko ditu, kontratatutako prestazioak gauzatzeko ordura arte egindako dokumentu guztiak, bai eta kontratuaren ondorioz sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa ere, erabilitako dokumentuekin eta erakunde kontratatzaileak kontratistari emandako dokumentuekin batera, eta horiek guztiak erakunde kontratatzailearen jabetzakoak izango dira.

Halaber, kontratua suntsiaraztea erabakitzen den unetik aurrera, hala badagokio, suntsitze-datara arte egindako obra guztia, bildutako materialak barne, erakunde kontratatzailearen jabetzakoa izango da. Ondorio horietarako, exekuzio-egoeraren akta bat idatziko da, zehaztuta gera daitezen erakunde kontratatzaileak hartutzat onartzen dituen obra-zatiak eta materialak, jaso gabekotzat jotzen diren obra-zatiak eta materialak, eta horiek ez hartzeko arrazoiak.
Hori guztia, hargatik eragotzi gabe gero egin beharko den kontratuaren likidazio ekonomikoa egitea, jarraian xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez bidezkoak izan daitezkeen beste edozein arrazoirengatik kontratua suntsiaraztetik erator daitezkeen erantzukizun ekonomikoak kontratua suntsiarazitakoan likidatuko dira, eta ez da eragozpen izango erakunde kontratatzaileak kontratua exekutatzen jarraitu ahal izateko.

Kontratua suntsiarazten bada, kontratistak eskubidea izango du, printzipioz, benetan egin dituen onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik suntsiarazten bada, **karatulako 24. puntuan** aurreikusitako zenbatekoa sortuko da erakunde kontratatzailearen alde, kalte-galeren edozein kalte-ordain jasotzeaz gain. Bi zenbateko horiek behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira, eta erreklamazioa egingo da hortik gorako zenbatekoagatik.

Aurrekoa gorabehera, berariaz adierazten da SPKLren 246. artikuluaren 2., 3. eta 4. paragrafoak aplikatuko direla, hau da:

a) Zuinketaren egiaztapena justifikaziorik gabe geroratu delako kontratua suntsiarazten bada, adjudikazio-prezioaren % 2koaren pareko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea baino ez du edukiko kontratistak, BEZik gabe, kontzeptu guztiengatik.

b) Administrazioak obrei hasiera eman baino lehen atzera egiten badu edo obren hasiera lau hilabetetik gorako epe batez etenda uzten badu, adjudikazio-prezioaren % 3ko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, BEZik gabe, kontzeptu guztiengatik.

c) Behin obrak egiten hasita atzera egiten bada edo hasitako obrak zortzi hilabete baino gehiagoz eteten badira, egin gabe utzitako obra-kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 6 jasotzeko eskubidea edukiko du kontratistak, kontzeptu guztiengatik, industria-mozkina moduan, BEZik gabe.

Azkenik, kontratua suntsiarazi ahal izango da, erakunde kontratatzailea eta kontratista ados jartzen badira; kasu horretan, bi aldeek baliozkotasunez erabakitakora egokituko dira haien eskubideak.

32. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu hau administratiboa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (9/2017, azaroaren 8koa) 17. eta 25.1 artikuluek xedatutakoaren arabera (aurrerantzean SPKL); Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak, 2014ko

otsailaren 26koak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira. Kontratua honako hauen arabera arautuko da:

a) Klausula partikularreko agiri honetako klausulak, agiriaren osagai den karatularen zehaztapenen arabera.
b) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea (9/2017, azaroaren 8koa), kontratua esleitzeko prozeduraren deialdia argitaratzeko unean indarrean dagoen bertsioan (SPKL).
c) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, urriaren 30eko 30/2007 Legearen (Sektore Publikoko Kontratuen Legea) atal batzuk garatzen dituena, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.
d) 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO) onartzen duena, SPKLn aurreikusitakoaren aurka ez doan heinean.
e) 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
f) Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren aurka ez doan heinean.
g) Horien osagarri, administrazio-zuzenbideko bestelako araubidea eta, besterik ezean, zuzenbide pribatukoa.

Nolanahi ere, lehen aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLren aurka ez doan guztian aplikatuko dira.

Bi agiriak kontratuzkoak izango dira eta kontratua formalizatzeko ekitaldian sinatu beharko dira, esleipenduna ados dagoela adierazteko. Klausula-agiri hau eta gainerako kontratu-dokumentuak bat ez badatoz, klausula-agiri honek izango du lehentasuna.

Kontratuaren klausulen, gainerako kontratu-agirien eta hitzartutakoa gauzatzean aplikatu beharreko jarraibideen edo arauen berri ez izateak ez du esleipenduna klausula horiek betetzeko betebeharretatik salbuesten. Eskaintza aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, salbuespenik edo erreparorik gabe.

33. JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOEI BURUZKO ARAUBIDEA

Kontratutik eratortzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe daudela ulertuko da.

Kontratazio-organoaren ebazpenen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren indarreko araudian jasotako errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira, bai eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoak ere.

EGINBIDEA: Plegu hauek Lehendakariak onartu ditu **2021eko irailaren 17an B21/0050** Ebazpenaren bidez.

Espediente kodea:
2021IKIE0011

I. ERANSKINA.- Abalerako eredua.

[…] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen izen soziala) –IFZ: […]; helbidea: […] (jakinarazpen eta errekerimenduetarako)– eta, haren izenean, […] jaunak/andreak (ahaldunen izen-abizenak), egintza hau egiteko behar besteko ahalordea duenak, agiri honen behealdean aipatutako ahalorde-askiestearen arabera, […] euroko ABALA EMATEN DIO […] jaunari/andreari/enpresari/erakundeari (abal-hartzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena] –IFZ […]–, […]-(r)en aurrean, […] kontratutik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal-emaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzekoaren, 56.2 artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituela. Abal hau solidarioa da behartu nagusiarekiko, eta esklusioaren onurari uko eginda eta […] jaunaren/andrearen/sozietatearen/erakundearen lehen eskaerarekin batera ordaintzeko konpromisoarekin eman da.

Abal hau indarrean egongo da […] jaunak/andreak/sozietateak/erakundeak uzteko edo itzultzeko baimena eman arte.
[…]-(e)n, […]-(e)ko […]-ren […]-(e)(a)n.

[Sinadura]

II. ERANSKINA.- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) betetzeko jarraibideak

1.- Lizitatzaileak EKAB aurkeztea hark lizitazio-prozedura honetan parte hartu ahal izateko baldintza-agiri honetan zehazten diren AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN dituelako aurretiazko froga da.
Enpresen egoera finantzarioari, gaitasunei eta kontratazio publikorako prozedura batean parte hartzeko egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena da EKAB, eta lizitatzaileek agiri hori aurkeztu beharko dute, SPKLren 140. artikuluarekin eta agiriaren formulario normalizatua eta betetzeko jarraibideak ezartzen dituen **2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Batzordearen Betetze Erregelamenduarekin (EB)** bat.
Kontratazio-organoak bere ahalmenak erabili ahal izango ditu, BAT zenbakiko gutun-azalean aurrez aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, horretarako beharrezko frogagiriak aurkeztea eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikuluak jasotzen dituen baldintzetan betiere.

Edonola ere, lizitatzaileak EKAB aurkezten badu konpromiso bat hartzen du bere gain, kontratuaren esleipena aldekoa badu EKAB agiriak ordezkatzen dituen frogagiriak aurkeztekoa zehazki.

2.- EKABen formulario normalizatua.
EKABen formulario normalizatua lizitatzaileen eskura dago honako helbide elektroniko honetan:
https://ec.europa.eu/growth/toolsdatabases/espd/filter?lang=es.

3.- Jarraibideak:

Dokumentuan adierazten diren **baldintza** guztiak **bete egin behar dira,** edonola ere, **lizitazio-epearen azken egunean**, kontratatzeko galarazpenak izan ezik, horiek kontratua formalizatu arte segitu behar baitute gutxienez. Administrazioak egiaztapenak egin ahal izango ditu, betiere, prozedurako edozein unetan.
Adierazpenak behar besteko ahala duen batek **sinatuta** egon behar du.

Kontratuaren gaia **sortatan zatitzea** aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lotetik lotera aldatzen badira, Europako kontratazio-agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimen-baldintza berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta-multzo bakoitzeko.
Eskatzen den bitarteko-atxikipena kanpo-bitartekoz betetzen badu lizitatzaileak, honek bere EKAB aurkeztu beharko du, eta EKAB bana, gainera, kontratua betetzeari atxikitako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batzuk **aldi baterako elkartea** eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guzti-guztiek dagokien EKAB formulario normalizatua aurkeztu beharko dute. EKAB formulario normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriaz gain, BAT zenbakiko gutun-azalean lizitatzaileen adierazpena jaso beharko da, baldintza-agiri honetako **V. eranskineko** ereduarekin bat, enpresa-talde batekoak diren ala ez adierazi beharko baitute horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistroan edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **izena emanda** dauden **enpresek** ez dute inskripzio horretan dagoeneko gaurkotuta dituzten datuak zertan eman, betiere zertzelada hori adierazten bada EKABen formulario normalizatuan. Edonola ere, lizitatzaileak berak ziurtatu behar du zer datu dauden egiaz jasota eta gaurkotuta eta zer datu ez. Eskatutako datu edo informazioetakoren bat ez dagoenean aipatutako lizitatzaileen erregistroetan erasota, edo horietan gaurkotuta ez badago, formularioa betez eman beharko da datu edo informazio hori.

EKAB formulario normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzaileek ondoko **dokumentu** hauek **kontsultatu ahal izango dituzte:**
2016/7 zk.ko Erregelamendua (EB), web honetan eskuragarri:

https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf

Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:
http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

4.- Prozedura honetarako formulario berezia duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.

III. ERANSKINA.- Adierazpenak jasotzeko notario-aktaren eredua, lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatze aldera, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu.

[OHARRA: Lizitatzaileak eskaintza onena aurkeztu badu eta, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatze aldera, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu soilik aurkeztu behar da. ***Hirugarren erakundeak bete behar du.]***

[…] jaunak/andreak, […] NAN zenbakia duenak, […] enpresaren legezko ordezkari gisa (enpresaren IFZ: […]), adierazten du osoki ezagutzen dituela […] (lizitazio-enpresaren izena) lizitatzailea aurkezten den […] kontratatzeko lizitazio-baldintzak, eta adierazten du aipaturiko lizitatzailea esleipendun gertatuz gero, kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren bitarteko guztiak haren esku jarriko dituela, eta ez duela asmo horretan atzera egingo; halaber, espresuki onartzen du Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa. […]-(e)k berariazko baimena eman beharko du ordezkapena edo aldaketa egiteko.

Idazki hori aurkeztearen ondorioa da […]-(e)k konpromiso hori onartzen duela, baldin eta lizitatzailea esleipendun suertatzen bada.

[…]-(e)n, […]-(e)ko […]-ren […]-(e)(a)n.

[Sinadura]

IV. ERANSKINA.- Lizitazio elektronikorako jarraibideak.

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOAREN SISTEMA.

1. Lizitazio elektronikoaren sistema kontratazio-prozeduraren izapideak egiteko erabiltzeko baldintzak (dokumentuak bidaltzea, kontratua sinatzea, jakinarazpenak jasotzea...).

1.1 – Baldintza administratiboak:

a) Izapidetze elektronikorako baimendutako ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun, hauek dira ziurtagiri elektroniko horiek:
• Izenpe (erakundea, herritarra, erakundearen ordezkaria).
• FNMT (erakundea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
• NANe • Camerfirma (Erakundea, Herritarra)

a) Egoera hauetakoren batean egotea:

• Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria edukitzea.
• Lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntza-sisteman alta emanda egotea.
• Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkartuta aurkezten badira, esleipendun izanez gero ABEE formalki eratzeko konpromisoarekin, ABEEren konpromisoak erregistratuta egon behar du aldi baterako gaikuntza-sisteman.

1.2. – Baldintza teknikoak:

Lizitazio elektronikoa egiteko baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan dago:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tec nicos.html
1.3. – Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko laguntza-zerbitzua: 945016298.

2. Lizitazio elektronikoaren sisteman sartzeko modua:

Sistema erabiltzeko, atari honetan sartu beharko da:

www.contratacion.euskadi.eus

Espediente kodea:
2021IKIE0011

V. ERANSKINA.- ABEE eratzeko konpromisorako eredua

…… jaunak/andreak (helbidea: ……; NAN: ……) bere izenean edo …… enpresaren izenean (enpresaren helbidea: ……; IFZ: ……), haren …….. (adierazi zer ordezkaritza-ahalmena duen: administratzaile bakarra, ahalduna….) den aldetik, ETA

…… jaunak/andreak (helbidea: ……; NAN: ……) bere izenean edo …… enpresaren izenean (enpresaren helbidea: ……; IFZ: ……), haren …….. (adierazi zer ordezkaritza-ahalmena duen: administratzaile bakarra, ahalduna….) den aldetik,

ADIERAZTEN DUTE

Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko (partaidetza: % …. eta % …., hurrenez hurren), eta …… jauna/andrea izendatzen dutela enpresa-elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak izanda.

Eta adierazpen honekiko adostasuna frogatzeko, sinatu egiten dugu ……..(e)n, 20….(e)ko ……..ren …….(e)(a)an.

Izptuta.: Izptuta.:

Enpresaren zigilua Enpresaren zigilua

VI. ERANSKINA. Formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaunak/andreak (helbidea: […]; NAN: […]), bere izenean edo […] jaunaren/andrearen/sozietatearen izenean (helbidea: […]; NAN edo IFZ: […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, […] egiteko lanak prozedura […] bidez kontratatzeko lizitazioa ezagututa, honako hau

ADIERAZTEN DU:

1. Udal Elkarteko eskualdeko hiru gabriguneetan TEEH-entzako estalpeak eraikitzeko obrak baldintza hauetan egiteko konpromisoa hartzen duela:

   - Proposamen ekonomikoa: .....euro (BEZ barne), honela banatuta:
     - ..... euro (prezioa BEZ gabe).
     - ..... euro (BEZ).

   Unitate-prezioen zerrenda erantsi zaio proposamen ekonomiko honi, exekuzio materialaren kontzeptu gisa, eta prezio horiek izango dira kontratua exekutatu bitartean indarrean egongo direnak.

2. Kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta beren-beregi onartzen duela.

[…]-(e)n, […]-(e)ko […]-ren […]-(e)(a)n.
[Sinadura]

Espediente kodea:
2021IKIE0011

VII. ERANSKINA. Datu pertsonalak tratatzeko baimena eta datuak tratatzeko kontratua sinatzeko konpromisoa.

Nik, ...jaunak/andreak (NAN: .....; helbidea: .....), nire izenean, edo ..... enpresaren izenean (helbidea: .....; IFZ: ....., *pertsona fisikoa ala juridikoa den kontuan hartuta*), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz,

ADIERAZTEN DUT

Baimena ematen dudala 2021IKIE0011 kontratazio-espedientean aurkeztutako eskaintzan jasotako datu pertsonalak tratatzeko.

Goian adierazitako kontratazio-espedientearen kontratuaren esleipendun izanez gero, hitz ematen dut, tratamendu-arduradun naizen aldetik, kontratuaren xedea betetzeko behar den datu pertsonalen tratamendurako kontratua sinatu eta beteko dudala.

(Lekua, data eta sinadura)

DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO INFORMAZIOA
Tratamenduaren arduraduna Urola Kostako Udal Elkartea
Helburua: Urola Kostako Udal Elkartearen obra eta zerbitzuen hornidura-kontratuak kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera.
Tratamenduaren legitimazioa: Toki-administrazioari buruzko legeria, entitatearen estatutuak, udal-elkarteko udalek esleitutako eskumenak eta sektore publikoko kontratuen legeria.
Hartzaileak: Kontratazioari dagokion obraren edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik lagako zaizkie datu pertsonalak.
Eskubideak: datuak atzitzea, zuzentzea eta ezabatzea, baita beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala.
Informazio gehigarria: Datu-babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsultatu dezakezu formularioaren amaieran edo gure web-orrian: http://www.urolakosta.eus/eu/web/ingurumena-urolakosta/datuen-babesa

Espediente kodea:
2021IKIE0011

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (2016/679 EB) ezarritakoaren arabera, Urola Kostako Udal Elkartearen hornitzaileak (obra- eta zerbitzu-kontratuak) kudeatzeko eskatutako datuen tratamenduari buruzko informazioa aurkezten dizugu.
Tratamenduaren arduraduna Urola Kostako Udal Elkartea, IFZ G20392064 Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz, Tel. 943890808 idazkaritza@urolakosta.eus www.urolakosta.eus
Datuen babeserako ordezkariaren kontaktua dbo@urolakosta.eus
Tratamenduaren helburua
Urola Kostako Udal Elkartearen obra eta zerbitzuen hornidura-kontratuak kudeatzea, sektore publikoko kontratuen legeriaren arabera. Datuen tratamenduak ez dakar berekin erabaki automatizatuak hartzea, ezta profilak sortzea ere.
Gordetzeko epea Kontratazio-espedientearen esleipena, kontratuaren xede den obra edo zerbitzua (berme-epeak barne) eta/edo horien justifikazio-aldia amaitu arte.
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa
Toki-administrazioari buruzko legeria, entitatearen estatutuak, udal-elkarteko udalek esleitutako eskumenak eta sektore publikoko kontratuen legeria.
Datuen jatorria Interesdunak
Datuen kategoria Tratamendu honetan honako datu-kategoria hauek landuko ditugu: identifikazio-datuak, helbideari eta kontaktuari buruzko datuak, hornitzailearen datuak (besteak beste, langileen datu akademikoak, profesionalak eta kaudimen teknikoari buruzkoak) eta datu ekonomikoak. Ez dira bereziki babestutako datuak tratatzen.
Hartzaileak Kontratazioari dagokion obraren edo zerbitzuaren xedea finantzatzen duten administrazio publikoei bakarrik lagako zaizkie datu pertsonalak. Ez da aurreikusten datu horiek hirugarren herrialdeetara transferitzea.
Pertsonen eskubideak Interesdunek datuak eskuratu, zuzendu edo, hala badagokio, ezabatu, aurka egin edo tratamendua mugatu dezakete, Datuak Babesteko ordezkariaren bidez. Halaber, interesdunek eskubidea dute Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamatzeko.

.

VIII. ERANSKINA. Enpresak emandako informazioa konfidentziala dela zehazteko dokumentu-eredua

Espediente kodea:
2021IKIE0011

(Aukerako aurkezpena)

Nik, ...jaunak/andreak (NAN: .....; helbidea: .....), nire izenean, edo ..... enpresaren izenean (helbidea: .....; IFZ: ....., *pertsona fisikoa ala juridikoa den kontuan hartuta*), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz,

ADIERAZTEN DUT

…….. zenbakia duen kontratazio-espedienteko ..... gutun-azalean (adierazi zein gutun-azal aipatzen den) aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, konfidentzialtzat jotzen direla eskaintzaren informazio eta alderdi hauek, sekretu tekniko eta komertzialekin duten lotura dela-eta:

Konfidentzialtasuna honako arrazoi hauek justifikatzen dute:

(Lekua, data eta sinadura)

Espediente kodea:
2021IKIE0011

IX. ERANSKINA

A. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ZINPEKO ADIERAZPENA

Lizitatzailearen datuak:

Nik, ... jaunak/andreak, adinez nagusi (NAN: .....; helbidea: .....; tel.: .....; e-posta: .....), nire izenean edo ..... enpresaren ordezkari gisa (IFZ: …….....; sozietatearen helbidea: .....; tel.:……; e-posta: …….), nire gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz,

ADIERAZTEN DUT

1. Goian adierazitako datuak dituen enpresak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan ezarritako betekizunak betetzen dituela, eta araudi horren araberako prebentzio-modalitate bat duela (Prebentzio Zerbitzu Propioa edo Kanpoko Prebentzio Zerbitzua), eta, esleipena eskuratuz gero, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legearen 24. artikuluan eta urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan (24. artikulua garatzen da, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez) aurreikusitako koordinazio-neurriak zorrotz betetzeko konpromisoa hartzen duela.
2. Ondorio horietarako, enpresa-jarduerak koordinatzeko eskatzen zaion dokumentazioa igorriko duela jarduera hasi aurretik, eta konpromisoa hartzen duela dokumentazio hori eguneratzeko, kontratua indarrean dagoen bitartean. Dokumentazio hori Urola Kostako Udal Elkarteak eskatutako bitartekoen bidez igorriko da.
3. Enpresa-jarduerak koordinatzeko erreferentziazko pertsona honako hau izango da:
    a. Izen-abizenak:
    b. Telefonoa:
    c. E-maila:
4. Lantokiko segurtasun-arauei eta larrialdietan jarduteko jardunbideei buruzko informazioa jaso duela eta kontratazioaren xede diren lanak egiten dituzten langileei informazio hori helarazi diela.

_____(e)n, _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n

IZEN-ABIZENAK	***KARGUA***
SINADURA ETA ZIGILUA	
KONTRATATUTAKO ENPRESA	

B. ENPRESENTZAKO BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ARLOAN

Baldintza-agiri honen xedea da zerbitzu-kontratu baten bidez Urola Kostako Udal Elkartearen zentroetan edo beste leku batzuetan jarduten duten enpresa kontratista guztiek laneko arriskuen prebentzioaren arloan bete behar dituzten betebeharrak finkatzea.

I. JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA EXEKUZIO-FASEAN:

1) Jarduera hasi aurretik, enpresa kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

a) e-coordina plataformaren bidezko koordinazioa kudeatzea. Proposamenean aurkeztutako zinpeko adierazpenean, enpresa esleipendunak pertsona bat izendatzen du enpresa-jarduerak koordinatzeko. Behin kontratua esleituta, pertsona horrek mezu bat jasoko du notificaciones@e-coordina.com helbidetik, berak adierazitako helbidean. Enpresa esleipendunak plataforma horretan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- Lanak hasi aurretik, eskatutako dokumentazioa aurkeztuko da. Dokumentazio hori lanak hasi baino gutxienez 48 ordu lehenago aurkeztu beharko da.
- Eskatzen den dokumenturen bat aurkezten ez bada, lana egingo duten pertsonak ezin izango dira lantokira sartu, ezarritako betebeharrak/baldintzak bete arte.
- Aurkezteko dokumentazioa kontsultatzeko, deitu 943 89 08 08 zenbakira eta eskatu prebentzio-teknikariarekin jartzeko.

b) Koordinazio-bilera, enpresa-jarduerak eta plangintza egoki koordinatzeko.

Izendatutako pertsonak izango du zuzenean bere esanetara lanean ari diren pertsonei (kontratatutako enpresetakoak barne) lan-arriskuei eta hartu beharreko segurtasun-neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza emateko ardura; halaber, bere eginkizuna izango da lan-arriskuak prebenitzeko arauak bete eta betearaztea.
Enpresak eskura jarri beharko ditu lanak behar bezala egiteko beharrezkoak eta egokiak diren ekipo eta bitarteko lagungarriak, eta horretarako izendatutako langileek laneko arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza egokia izan beharko dute lanak egiteko.

2) Zerbitzuak exekutatzeko fasean.

Lanak egiten diren bitartean, enpresa kontratistaren arduradunak idatziz jakinaraziko dio Urola Kostako Udal Elkarteak izendatutako arduradunari:

1. Kontratak jardueran izandako edozein aldaketa esanguratsu, lanean hasten diren edo lanari uzten dioten langileen izenak, zerbitzua ematen ari den bitartean izandako edozein gorabehera. Idazkian jasoko dira aldaketa horrek zer behar sorrarazi dituen segurtasunaren eta osasunaren arloan.
2. Jarduera hasi aurretik aurkeztutako dokumentazioaren edozein eguneratze Urola Kostako Udal Elkarteari helaraziko zaio, hasieran adierazitako moduan (e-mail bidez edo berariazko programa informatikoaren bidez).
3. Kontratako langileek istripuren bat izaten badute, idatziz jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Jakinarazpen-idazkian adieraziko da istripua nola gertatu den, zer lesio izan diren, zergatik gertatu den, eta zer neurri hartu diren horren inguruan.

Aldaketa horiek e-coordina koordinazio-plataforman eguneratuko dira.

II. KONTRATATUTAKO ENPRESAREN EGINBEHARRAK ZERBITZUA BURUTZEN ARI DELA.

1. Lanak hasi baino lehen, kontrataren arduradunak, Urola Kostako Udal Elkarteko arduradun izendatuarekin batera, lanak egingo diren eremua bisitatu beharko du. Bisita horretan, lanen eremua mugatuko da, eta segurtasunagatik mugaketa fisikoa egitea komeni den erabakiko da (hesitzea, itxiturak, barandak, etab).
   Era berean, bisitan, prebentzio-neurriak (seinaleak, sarbide-baimenak, balizak...) eta babes kolektibo eta indibidualeko ekipoak zehaztuko dira, lan-eremuetan sartzeko eta egoteko. Halaber, neurri eta ekipo horien derrigortasuna, maiztasuna, kokapena eta abar zehaztuko dira.
2. Zerbitzua ematen den bitartean zer jarduera ezin diren aldi berean egin zehaztuko dute enpresa kontratistak eta Urola Kostako Udal Elkarteak, eta idatziz jasoko dute bateraezinak diren jarduerak aldi berean egiteko debekua.
3. Enpresa kontratistaren langile guztiek kualifikazio egokia izan beharko dute egingo dituzten lanetarako, eta, hala badagokio, ziurtagiri ofizialak behar bezala eguneratuta izan beharko dituzte, eta Urola Kostako Udal Elkartearentzat egiten duten lanari buruzko prestakuntza eta jarraibide bereziak jaso beharko dituzte, bereziki, laneko segurtasunari eta osasunari dagokienez. Horrela ez baldin bada, langileek ez dute baimenik izango lanak egiteko.
4. Enpresa kontratistako langileek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko neurriak ez betetzearen ondorioz, lan-agintaritzak Urola Kostako Udal Elkarteari zehapenen bat ezartzen badio, Urola Kostako Udal Elkarteak beretzat gordetzen du enpresa kontratistaren aurka legezko ekintza egokiak egiteko eskubidea.
5. Kontratatutako zerbitzua egitean enpresa kontratistak erabiltzen dituen lan-ekipamendu, babes-baliabide (banakakoak zein kolektiboak) eta material guztiek bete beharko dute lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia, eta Urola Kostako Udal Elkartearen eskura egon beharko dute betetze hori egiaztatzen duten ziurtagiriak.
6. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean edo Urola Kostako Udal Elkartearen kontura lan egiten duten langile guztiek behar bezalako janzkera eramango dute, behar bezala zainduta, garbituta eta txukun.
7. Urola Kostako Udal Elkartearena ez den lantoki batean lan egiten duten langile guztiek lantoki horretara sartzeko berariazko baimena izan beharko dute aldez aurretik.
8. Pertsonek edo instalazioek istripu larriren bat izaten badute, edo unean larritzat edo oso larritzat har daitekeen istripuren bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Enpresa kontratistak istripuaren ikerketari eta proposatutako eta ezarritako neurriei buruzko txostena bidaliko du, gehienez ere 5 eguneko epean.
9. Enpresa kontratistak eguneratuta izan beharko ditu hasieran aurkeztutako agiriak.
10. Enpresa kontratistak ezin izango ditu lanak azpikontratatu Urola Kostako Udal Elkartearen berariazko baimenik gabe. Kasu horretan, azpikontratatutako enpresak edo autonomoen araubideko langileek dokumentu honetako eskakizun berak bete beharko dituzte, eta enpresa kontratista izango da eskakizun horiek eskatzearen eta ez betetzeen erantzule Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean.
11. Urola Kostako Udal Elkartearen ikuskapenak azpikontrata horiei edo autonomoen araubideko pertsonei aplikatu ahal izango zaizkie. Ikuskapen horietan langileei eragin diezaieketen arriskuak detektatzen badira, neurri zuzentzaileak/prebentiboak abian jartzeko jakinaraziko da.
12. Urtero bilera bat egingo da (gutxienez urtean behin) segurtasunaren eta osasunaren arloko gaiei jarraipena eta kontrola egiteko.